

I. ERANSKINA: ARLOAREN, JAKINTZAGAIAREN EDO EREMUAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILOIA

Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:		Kodea:	014441	Ikasturtea:	2024/2025
Etap:	Bigarren Hezkuntza	Zikloa/maila:	DBH 1		
- Arloa/Jakintzagaia: - Eremua: - Diziplinarteko proiektua - Bestelakoak	Erlijio Katolikoa	Irakasleak:	Aitor Ortega Pérez		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Erlijioa Bigarren Hezkuntzako curriculumean txertatuta, Espainiako hezkuntza-legeria bat dator Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin (1948). Adierazpen horrek aitortzen du guztiek hezkuntza integrala izateko eskubidea dutela eta familiek beren seme-alabei eman beharreko hezkuntza-mota aukeratzeko lehentasunezko eskubidea dutela.

Esparru horretan, erlijio katolikoaren irakaskuntza ikastetxeetarako derrigorrezko curriculum-irakasgai gisa proposatzen da, eta familientzako aukera librekotzat. Ikasleen nortasuna erabat garatzeko beharrezkoa den hezkuntzaren parte da. Bere nortasun eta izaeraren bidez, Erljio Katolikoa irakasgaiak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren berezko xedeekin bat etorritik, ikasleen hezkuntza-prozesua bultzatzen du, eta, hala, ikasleen prestakuntza integrala eta nortasuna garatzen laguntzen du.

Eskolako Erljio Katolikoaren irakasgaiak hezkuntza-ekarpenak ditu ezaugarri, etaparen helburu, jomuga eta printzipio orokor eta pedagogikoekin bat, baita funtsezko konpetentziekin ere. Curriculumaren ikaskuntzekin, kristau-antropologian inspiratuta, ikasleen prestakuntza-prozesua aberasten da, familiek hala aukeratu badute.

Erljio Katolikoaren curriculumaren ekarpen horiek, mezu kristauaren argitan, denak barneratuz giza sustapenerako konpromisoari erantzuten diote, eskolaren botere eraldatzailea indartzen dute eta oinarritzko irakaskuntza bukatzean ikasleen irteera-profilari berezko ekarpena egiten diote.

IKASLEEN IRTEERA PROFILA

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

DESKRIPTORE OPERATIBOAK¹

1. Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)	HKK1. Euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglez bidez hitz egiten du, koherentziaz, zuzentasunez eta gizarte-testuinguruekiko egokitasunez, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai eta lotura pertsonalak eraikitzeko ere. HKK2. Pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritiko, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko. HKK3. Hainbat iturritatik datorren informazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, gero eta modu autonomoagoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-helburuen arabera, eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz; informazioa integratu eta ezagutza bihurtzen du, komunikatzeko, ikuspegi sortzaile, kritiko eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera. HKK4. Autonomiaz irakurtzen ditu bere adinerako egokiak diren hainbat lan euskaraz eta gaztelaniaz, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa esperientzia indibidual eta kolektiboaren bidez pribilegiatutzat hartzen du; eta bere esperientzia biografikoa eta ezagutza literario eta kulturalak mugiarazten ditu, obren interpretazioa eraikitzeko eta partekatzeko eta gero eta konplexuagoak diren asmo literarioko testuak sortzeko. HKK5. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazkak elkarriketaren bidez konpontzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzailerak baztertuz, bai eta hizkuntzaren bidezko botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera asertiboa izateko.
2. Konpetentzia Eleaniztuna (KE)	KE1. Hizkuntza bat edo gehiago modu eraginkorrean erabiltzen ditu, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez eta hizkuntza ofizialez gain, bere komunikazio-premiei behar bezala eta egoki erantzuteko, bai bere garapen eta interesei dagokienez, bai eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguruei dagokienez. KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, bere ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzen du, eta beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan eskuratutako ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko estrategiak erabiltzen ditu, eta konfiantzazko jarrera erakusten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko duen konpetentzian. KE3. Ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna onartzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera erakusten du, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat, kultura- ondareztat eta gizarte-kohesioa sustatzeko tresnatzat hartzen ditu.
3. Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeneritzarako Konpetentzia (STEM)	STEM1. Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo induktibo, deduktibo eta logiko batzuk erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko-deduktiboa ere egoera ezagunetan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako soluzioak eta prozesua kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero. STEM2. Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema natural eta materialei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutza konfiantza bereganatuz garapenaren motor gisa, galderak planteatuz, eta hipotesiak egiaztatuz esperimentazioaren eta ikerketaren bidez, tresna egokiak erabiliz, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioetsiz, eta eredu zientifikoarekiko ondorio esanguratsu eta koherenteren bat lortuz, zientziaren irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz. STEM3. Proiektuak planteatzen eta garatzen ditu, eta, horretarako, hainbat prototipo edo eredu diseinatu, fabrikatu eta ebaluatzen ditu, premia edo arazo bati modu sortzailean eta kooperatiboan irtenbidea emango dioten produktuak sortzeko eta/edo erabiltzeko, talde osoaren parte-hartzea saiatuz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta iraunkortasunaren garrantzia baloratuz.

¹ Oinarrizko Hezkuntza bukatutakoan ikasleengandik funtsezko konpetentziei lotutako espero den jardun maila.

	STEM4. Prozesu, arrazoketa, erakustaldi, metodo eta emaitza zientifiko, matematiko eta teknologikoen elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak...) eta kultura digitala modu kritikoan aprobetxatzen du, hizkuntza matematiko-formala barne, etika eta erantzukizunez, ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeke. STEM5. Osasun fisikoa eta mentala eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzei ekiten die, eta etika- eta segurtasun-printzipioak aplikatzen ditu ingurune hurbila modu jasangarrian eraldatzeko proiektuak egitean, haren eragin globala baloratuz eta kontsumo arduratsua praktikatzuz. STEM6. Modu kritikoan justifikatzen du ikerketa zientifikoaren beharra eta horren aplikazioak eta aurrerapen zientifiko-teknologikoak gizartearen ongizatean, hainbat egoera problematikoren aurrean erabaki arrazoituak hartzeko gizarte modernoaren garapenean izan duten zeregina ezagututa.
4. Konpetentzia Digitala (KD)	KD1. Interneten bilaketa aurreratuak egiten ditu (bilaketa-terminoen, formatuaren, gaurkotasunaren eta lizentziaren arabera), baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta, informazioa modu kritikoan hautatu eta ulertzen du, modu esanguratsuan konbinatuz, eta modu ordenatuan artxibatuz, berreskuratu eta erreferentzia egiteko, jabetza intelektuala errespetatuz. KD2. Etengabeko ikaskuntzako bere ingurune pertsonal digitala kudeatzen eta erabiltzen du jatorrizko ezagutza eta eduki digitalak hainbat formatutan ekoizteko eta gordetzeko, atazaren edo beharren arabera dagozkion tresna digitalak erabilita, bai dauden edukiak berrerrabilita, bai sortutako edukiei lizentziei buruzko ezagutza aplikatuta. KD3. Sare sozialen edo lineako komunitateen gisako tresnen eta/edo plataformen bidez parte hartzen, laguntzen eta elkarreragiten du, komunikatzeko, lankidetzan lan egiteko eta edukiak, datuak eta informazioa partekatzeko; horretarako, bere helburura ondoen egokitzen dena aukeratzen du, bere ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzen du. KD4. Gailu digitalak babesten ditu, segurtasun- estrategiak eguneratzen ditu, haien pribatutasuna eta besteena ulertzen eta babesten ditu oro har, eta oinarritzko ezagutza du haien datuak biltzeko eta erabiltzeko moduari buruz, badaki bere burua eta beste batzuk ziberjazarpenetik babesten, eta ulertzen ditu teknologien erabilerari lotutako osasun-arriskuak (ergonomia, adikzioak), eta ulertzen du teknologiak ingurumen-jasangarritasunean duen eragin positiboa eta negatiboa. KD5. Arazo tekniko posibleak eta gabeziak identifikatzen ditu, baliabideak, tresnak eta gaitasun digitala garatzeari dagokionez, eta irtenbidea ematen die; informatika-aplikazio errazak eta irtenbide teknologiko sortzaile eta jasangarriak garatzen ditu arazo zehatzak konpontzeko edo proposatutako erronkei erantzuteko; interesa erakusten du, eta teknologia digitalen bilakaeraren, garapen iraunkorraren eta erabilera etikoaren azpian dauden printzipio orokorrak eta logika ulertzen ditu.
5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII)	KPSII1. Bere emozioak erregulatzen eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz. KPSII2. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta inguruneak identifikatzen ditu. KPSII3. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu ekitatiboan banatuz eta onartuz eta estrategia kooperatiboak erabiliz. KPSII4. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz. KPSII5. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelikadurako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitzeke prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.
6. Herritartasunerako Konpetentzia (HK)	HK1. Bere nortasunaren dimentsio sozialari eta herritarrari buruzko ideiak aztertzen eta ulertzen ditu, bai eta identitatea zehazten duten gertaera sozial, historiko eta arauemaileei buruzkoak ere, eta arauak, enpatia, ekitatea eta espiritu konstruktiboa errespetatzen ditu besteeiko elkarreraginean, hainbat testuinguru sozioinstituzionalean. HK2. Europako integrazio-prozesutik, Euskal Autonomia Estatututik eta giza eta haurren eskubideetatik datozen printzipioak eta balioak aztertzen eta onartzen ditu, eta, horretarako, Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, hala nola erabakiak hartzean edo gatazkak konpontzean, jarrera demokratikoarekin,

	aniztasunarekiko errespetuarekin eta genero-berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, garapen iraunkorrekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromisoarekin. HK3. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etikoak ulertzen eta aztertzen ditu, norberaren eta besteen balioak kritikoki kontuan hartuz, eta bere iritziak garatuz, eztabaida moralari aurre egiteko elkarrizketarako, argudiatzeko, errespetuzko eta edozein diskriminazio edo indarkeriaren aurkako jarreraz. HK4. Jarduera lokal eta globalen arteko interdependentsia, ekodependentsia eta interkonexioko harreman sistemikoak barne hartzen ditu, eta modu kontzientean eta motibatuan hartzen du bizimodu iraunkorra eta ekosozialki arduratsua.
7. Ekintzailtza-konpetentzia (EK)	EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu, eta erronkei zentzu kritikoarekin aurre egiten die, iraunkortasunaren balantzea eginez, ingurunean izan dezaketen eragina baloratuz, ideia eta irtenbide berritzaileak, etikoak eta iraunkorrak aurkezteko, eremu pertsonalean, sozialean, kulturean eta ekonomikoan balioa sortzera bideratuta. EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzen ditu, autoezagutzako eta autoeraginkortasuneko estrategiak erabiliz, eta ekonomiaren eta finantzen funtsezko elementuak ulertzen ditu, ekonomia- eta finantza-ezagutzak aplikatzen dizkie jarduera eta egoera zehatzei, eta lankidetzako eta talde-lana erraztuko duten trebetasunak erabiltzen ditu, ekintzara esperientzia ekintzaile baliotsua eramango duten beharrezko baliabideak biltzeko eta optimizatzeko. EK3. Ideia eta konponbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, modu arrazoituan, planifikatzeko eta kudeatzeko estrategia arinak erabiliz. Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, prototipo berritzaileak eta baliozkoak sortzeko prozesua burutzeko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.
8. Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako Konpetentzia (KAKK)	KAKK1. Edozein garaitako ondare kultural eta artistikoaren funtsezko alderdiak ezagutu, kritikoki estimatu, errespetatu eta sustatzen ditu, eta bere nortasuna eraikitzeke kultura- eta arte-aniztasunari datzekion adierazpen-askatasuna eta aberastea baloratzen ditu. KAKK2. Gozatu, ezagutu eta aztertu autonomiaz ondareko adierazpen artistiko eta kultural nabarmenenen berezitasunak eta intentzionalitateak, haien hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez, edozein bitarteko edo euskarritan. KAKK3. Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta modu irekian adierazten ditu. Autoestimua, sormena eta pertenezentzia-sena garatzen ditu, adierazpen kultural eta artistikoaren bidez, enpatiaz eta lankidetzazko jarreraz. KAKK4. Interpretazioaren, exekuzioaren, inprobisazioaren eta konposizio musikaren bidez produktu artistikoak eta kulturalak sortzeko oinarritzeko baliabide/euskarri plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuak eta gorputzezkoak ezagutzen, hautatzen eta sormenez erabiltzen ditu. Eskaintzen dizkieten garapen pertsonal, sozial eta ekonomikorako aukerak identifikatzen ditu.

Curriculumaren plangintza

Ikas-egoeren izenburua	Konpetentzia espezifikoak (Adierazi erlazonatutako irteera-profilaren deskriptore operatiboak)	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
LEHEN HIRUHILEKOA			
Erljioa gure artean betidanik	5.- Kultura eta gizarte guztietan dagoen barne-izaera, esperientzia espiritual eta erlijiosoa ezagutu eta aintzat hartzea, pertsonaia garrantzitsuen esperientzia ulertuz eta erlijiosoaren aukerak baloratzuz, bizitzaren zentzuari buruzko galderei eman dakizkiekeen erantzunak bereizteko eta tradizio erlijioso desberdinen arteko errespetua bultzatzeko. HKK1, KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK3, EK2, KAKK1, KAKK3	5.1 Esperientzia espiritual eta erlijiosoa herri eta kultura guztien berezko giza eta gizarte-dimentsio gisa baloratzeko, espiritutasun judeokristauaren eta beste erlijio batzuen espezifikotasuna ezagutuz. 5.2 Eliza eta tradizio erlijiosoak errespetatzea, bakoitzaren sinesmenak, errituak, sinboloak eta printzipioak ezagutuz eta baloratzuz, eta erlijioen arteko elkarriketa erraztuko duten irizpen pertsonaleko elementuak izatea	Espiritualtasuna eta esperientzia erlijiosoa giza eta gizarte-errealizazio gisa Otoitza eta begiespena estimatzea tradizio judeokristauan eta beste erlijio batzuetan, ontasunarekin, egiarekin eta edertasunarekin bat egiteko, eta kulturarteko eta erlijioen arteko elkarriketarako aukera Pertsonaren oinarrizko harremanak: nork bere buruarekin, besteekin, naturarekin... Entzuteko, enpatiarako eta adierazpen asertiborako trebetasunak eta jarrerak, pertsonen arteko komunikaziorako

BIGARREN HIRUHILEKOA			
Munduko erlijioak	4. Kultura-ondarea bere adierazpideetan interpretatu eta mirestea, identitateen eta zentzuaren eramaileak direla onartuz, eta aintzat hartuz kristautasuna hainbat adierazpenetan islatu dela, partaide izatearen zentzua garatzeko, bizikidetzara eraikitzen parte hartzeko eta giza eskubideen esparruan kulturen arteko elkarriketa sustatzeko.	4.1 Gure kulturaren adierazpen artistiko desberdinak ezagutzen hastea, ikus-entzunezko adierazpen eta hizkuntza guztietan.	Otoitza eta begiespena estimatzea tradizio judeokristauan eta beste erlijio batzuetan, ontasunarekin, egiarekin eta edertasunarekin bat egiteko, eta kulturarteko eta erlijioen arteko elkarriketarako aukera
	5. Kultura eta gizarte guztietan dagoen barne-izaera, esperientzia espiritual eta erlijiosoa ezagutu eta aintzat hartzea, pertsonaia garrantzitsuen esperientzia ulertuz eta erlijiosoaren aukerak baloratuz, bizitzaren zentzuari buruzko galderei eman dakizkiekeen erantzunak bereizteko eta tradizio erlijioso desberdinen arteko errespetua bultzatzeko.	4.2 Giza eskubideak modu errezean ezagutzea, kulturarteko eta erlijioarteko elkarriketa eta arte erlijiosoa modu errazean ezagutzea ere.	Jainkoaren Erresumaren proposamen etiko eta erlijiosoa gizarte pluraletan
		5.1 Esperientzia espiritual eta erlijiosoa modu errazean baloratzen hastea, herri eta kultura guztien giza eta gizarte-dimentsio gisa, espiritualtasun judeokristaua eta beste erlijio batzuk gainetik ezagutuz.	Elizak erlijio-aniztasunari eta haren adierazpenei buruzko balorazio positiboa egitea
		5.2 Isiltasuna, emozioak eta sentimenduak hazkunde pertsonalaren elementu garrantzitsu gisa baloratzen hastea, ikasle bakoitzaren barne-ezagutzan lagundu	

		duten esperientzia errazak eginez.	
HIRUGARREN HIRUHILEKOA			
Gure etxea zaintzen dugu: ura eta <i>Laudatio Si</i>	2. Gizakiaren izaera erlazionala baloratzea, justiziara eta bizikidetza hobetzera bideratutako gizarte-trebetasunak eta jarrerak garatuz, Elizaren gizarte-maisutza kontuan hartuta, beste batzuekin bizitzen ikasteko eta munduaren haurridetasun unibertsala eta iraunkortasuna lortzen laguntzeko 3. Gizateriaren erronkak ikuspegi inklusibo batetik onartzea, gizabanakoen eta gizartearen beharrak onartuz, eta «Jainkoaren Erresuma», gizartearen eraldaketan eta guztien ongiaren lorpenean pertsonalki eta profesionalki inplikatzeko. 4. Kultura-ondarea bere adierazpideetan interpretatzea eta	2.1 Besteekiko harremanetarako trebetasunak eta jarrerak hartzea, gogoetarako eta komunikaziorako, elkarri laguntzeko, parte hartzeko eta gizarteratzeko estrategia eraginkorrak gauzatuz, familian eta eskolan bizikidetza hobetzera bideratuta, haurridetasun unibertsalaren adierazpen gisa. 3.2 Bere ingurune hurbilena ezagutzea, bazterkeria, marjinazio, bidegabekeria edo indarkeria-egoerak identifikatzeko gai izateko. 4.2 Giza eskubideak modu errezean ezagutzea, kulturarteko eta	Pertsonaren oinarritzko harremanak: bere buruarekin, besteekin, naturarekin eta Jainkoarekin. Elizaren magisteritza sozialetik kritikoki aztertutako gertuko bidegabekeria- eta bazterketa-egoerak. Elizaren gizarte-proiektuak historian zehar eta gizarteratzeari eta ekologia integralari egindako ekarpena.

	mirestea, identitateen eta zentzuaren jabe direla onartzea eta kristautasuna hainbat adierazpenetan nola gorpuztu den balioestea, kide izatearen zentzua garatzeko, bizikidetzaren eraikuntzan parte hartzeko eta giza eskubideen esparruan kulturen arteko elkarriketa sustatzeko. 6. Teologia kristauaren funtsezko edukiak identifikatu eta ulertzea, tradizio kristauak egiaren bila egiten duen ekarpena kontuan hartuz eta baloratuz, beste tradizio, paradigma eta mundu-ikuskera batzuekin hitz egiteko aukera emango duen kristautasunaren sintesia izateko	erlijioarteko elkarriketa eta arte erlijiosoa modu errazean ezagutzea ere. 6.2 Kristau-fedearen lehen sintesia egitea, fedearen eta arrazoimenaren arteko elkarriketarako gaitasuna azpimarratuz, fedearen eta kulturaren artekoa, norberaren usteak besteen sinesmenekiko errespetu osoarekin mantenduz	
--	--	--	--

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, etab.

Irakasgai honen planteamendu metodologikoak, oro har, honako hauetan oinarritzen dira: ikasleei arreta pertsonalizatua ematea, jardueren, estrategien, baliabideen eta bestelako metodo didaktikoen aniztasuna; ikasleen garapen emozionala eta kognitiboa zaintzea, beren eboluzio-erritmoa errespetatuz; ikaskuntza indibidualizatua eta kooperatiboa; ikaskuntzek ingurunearekin duten harremana, ekintzara, ekintzailatzara eta jakintzen aplikaziora bideratutako eskumen-ikuspegia. Ikasle guztien baldintza pertsonalak, sozialak eta kulturalak kontuan hartu beharko dira behar espezifikoak antzemateko eta indartzeko edo zabaltzeko ekintzak proposatzeko, prozesuak malgutuz eta ikasle guztien sarrera bermatuz. Ebaluazioa irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu honen parte da. Erlijio Katolikoaren irakasgaiak ordezkazina den erantzukizuna ematen dio irakaslearen figurari, haren esku-hartzea ezinbestekoa baita irakaskuntza-prozesuaren kudeaketan, bai programazioan, bai haren garapen eta ebaluazioan.

Erlijio Katolikoa irakasgaiaren didaktikak, konpetentzia-curriculum baten arabera planteatua, ikasleen protagonismoa sustatu beharko du beren ikaskuntza-prozesuan. Hona hemen ikaskuntza-sekuentzietan eman beharreko urratsetako batzuk:

- Ikaslearen esperientzia zehatzetik eta bere errealitate pertsonal, familiar, sozial eta kulturaletik abiatzea;
- Egoera horiek sortzen dituzten zalantzak eta galderak identifikatzea eta pentsamendu kritikoz adieraztea;
- Esperientziak eta galderak iturri biblikoekin, Elizaren Maisutzarekin, ondare artistikoarekin eta fedea-kultura elkarrizketaren beste erreferentzia batzuekin bilatu, aztertu eta alderatzea;
- Norbanakoaren askatasunetik erantzun pertsonalak eta sozialak lantzea, besteen ideiak erabat errespetatuz, Elizaren gizarte-irakaskuntzaren printzipioekin alderatuz;
- Beste mundu-ikuskera eta erlijioekin hitz egitea, guztion ongian oinarritutako gizarte plural eta demokratikoetan bizitza eraikitzeke;
- Norberaren ideia eta sinesmenak asertibitatez eta enpatiaz komunikatzea, sormenez hainbat hizkuntza erabiliz;
- Prestakuntza-prozesu hori norberaren identitatea eta bizi-proiektua eraikitzean aplikatzea, bizitza osorako ikaskuntzarako prestakuntza gisa, eta gizarte-eraldaketan.

Aplika daitezkeen metodologia aktiboen aniztasunak kontuan hartu beharko ditu ibilbide pedagogiko honen urratsak eta konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarritzko jakintzak, hau da, irakasgai honen funtsezko ikaskuntzak. Orientabide metodologikoek eta ebaluaziorako programatuek modu koherentean bateratuko dituzte

erlijio katolikoaren arloan proposatzen diren ikaskuntza horiek, ikasleen beharrak, etapako helburuak eta irteerako profila.

Arreta pertsonalizatua

Erljio Katolikoa irakasgaiaren curriculumak, bere orientabide metodologikoetan, hezkuntza pertsonalizatuaren aldeko apustua ere egiten du, pertsona hezkuntza-prozesu guztien erdigunean jartzen duena. Horretarako, ikasle bakoitzari lagundu egin behar zaio bere nortasuna eta bere ikaskuntza-erritmoa kontuan hartuta, bere esperientzia pertsonala, familiakoa eta soziala onartu eta zaindu behar dira, bere autonomia eta askatasuna errespetatu, eta besteekiko loturak sustatu, indibidualki zein komunalki hazteko. Arreta pertsonalizatuaren bidez, ikasleek beren ezagutza prozesuan konpromisoa eta inplikazioa lortzen laguntzen da, nortasunaren alderdi guztiei modu integratuan erantzunez. Zehazki, Erljio Katolikoa irakasgaiak ikasleen barne-izaeraren, espiritualtasunaren eta esperientzia erlijiosoaren garapenari arreta eta laguntza ematen dio. Balio pertsonala duen ikaskuntza honetarako, besteak beste, honako baliabide hauek erabil daitezke ikasgelan: talentuaren eta pentsatzen ikasteko dinamiken paper-zorroa, eta heziketa emozionaleko eta entzute aktibokoa, alderantzizko klasearen inplementazioa, jarduera metakognitiboak sortzea, gamifikazioa eta esperientzia-ikaskuntza.

Metodologiari dagokionez aktiboa eta kooperatiboa izango da ikaslearentzat ikasgaiaren alor gehienak lantzerako orduan. Ikasleak izan behar dira ikaskuntza prozesuaren protagonistak eta aktiboki eta gainontzekoekin elkarlanean euren ikaste prozesua eraikitzen joan gure laguntzarekin batera. Dena den, bai elementu teoriko batzuen barneratzean zein ariketa mekanikoen trebatzean irakaslea izango da protagonista hala egoki deritzon kasuetan.

Erabilitako metodologia konpetentziak garatu eta ebaluatzera zuzenduko da eta ondorengoak hartuko ditu aintzat: komunikazioari garrantzia emango zaio, baliabide digitalak erabiliko dira eta ebaluazioa ikaskuntza-prozesuan txertatuko da.

Informazio teoriko gehiena IDU printzipioak aplikatzen dituen materialaren bidez helaraziko zaio ikasleari eta horrek flipped classroom metodologia ahalbidetuko du; etxean teoria barneratu eta klasean barneratu diren eduki horiekin konpetentziak lantzea.

Bestalde, erabilitako metodologiak batez ere gainontzekoekiko harremana eskatzen duten jardunetan balioetan heztera bideratu behar gaitu; eskola ingurune seguru eta goxoa dela bermatu nahi dugu balore demokratiko eta etikoak garatuz, justizia eta gainontzekoeko errespetua landuz eta diskriminazio oro ekidinez.

Lan indibiduala eta kooperatiboa

Erljio Katolikoa irakasgaiaren proposamen metodologikoek banakako laguntzako eta talde-laneko ikaskuntza-esperientziak bultzatu behar dituzte, talde txikian edo talde osoarekin, prozesu kognitiboak aberasteko, ikasleek erabakiak hartzean aktiboki parte hartuz, erantzukizunaren eta kidetasunaren zentzua bultzatuz; horrela, ikaskuntzarekiko motibazioa eta konpromisoa areagotu egiten dira. Horregatik, arreta pertsonalarekin eta irakasleen orientabideekin batera, talde heterogeneoetan lanak eta ekintzak egitea proposatzen da, lankidetzak sustatuz, ez lehiakortasuna, ikasgelan talde-laneko ohiturak garatzeko, gizarte pluraletan bizitzari aurrea hartzeko. Ikaskuntza kooperatibo horrek ikasleen arreta motibatzen eta mantentzen laguntzen du eta beren autonomia garatzen du. Zehazki, Erljio Katolikoa irakasgaiak autonomia eta askatasun pertsonala, erantzukizun soziala eta planetaren zaintza balioak proposatzen ditu. Metodologia honetarako, besteak beste, honako baliabide hauek erabil daitezke ikasgelan: lankidetzak formaleko eta informaleko teknikak, teknologien eta sare sozialen erabilera arduratsua, erronken, desafioen edo arazoen bidezko ikaskuntza, web sozialen eta sareko elkarlaneko espazioen erabilera.

Hizkuntzen tratamendua:

Ikastetxean 4 dira ikasleek klaseko jardunean erabili ditzaketen hizkuntzak. Hizkuntzei dagokionez beraz, planteamendua eleaniztasunaren printzipioekin bat dator eta helburua guztion artean gure ikasleak hizkuntza ezberdinetan kompetenteak izatea da, haietako bakoitzak curriculumean daukan pisua kontuan hartuta betiere.

Hala ere, aipamen berezia dauka euskararen posizioak eta erabilerak, irakasgaiko hizkuntza zein dela kontuan hartu gabe ikastetxeko alor gehienetan euskera baita lehenetsitako hizkuntza. Kontuan hartu behar dugu euskararen egoera batez ere erabilerari dagokionez, baina baita jakintza mailari dagokionez ere, ez datorrela bat izan beharko lukeenarekin. Euskara minorizatutako hizkuntza da eta gure ikasleetako askok zailtasun nabariak dituzte bere erabileran eta era argian lehenesten dute gaztelera. Hartara, Normalkuntza, Eleaniztasunerantz eta Elkarhitz bezalako proiektuen helburuekin bat eginez euskara bultzatu behar dugu eremu formal zein informalean denon artean era koordinatu eta bateratuan.

Bestalde, hizkuntzen tratamenduari dagokionez pausuak ematen jarraitu behar dugu momentu honetan eta etorkizunean onetsi den planteamenduan sakonduz; Hizkuntzen Tratatua Bateratua. Gero eta gehiago integratu behar dugu gure jarduna planteamendu honetan eta irakasgai guztietatik egiten diren dinamikak armonizaziora jo behar dute bai programazioko sakoneko planteamenduetan zein eguneroko jardunean.

IDU (Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala)

Erljio Katolikoaren irakasgaiaren metodologiak kontuan hartuko ditu Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioak, ikaskuntza-, irakaskuntza- eta ebaluazio-praktikak osatutako proposamen didaktikoak programatzeko, ikasleen garapen integraleko prozesua aberasten laguntzeko, ikasleen familia- eta gizarte-inguruneko erlijio- eta kultura-tradizioa aintzatesteko, beren bizitza pertsonalerako eta gizarterako beharrezkoak diren jarrerak, balioak eta sinesteak lortzeko, barne-hazkunde eta bizitza-proiektu gisa. Horrela, guztiontzako prozesu pedagogikoak sustatzen dira, ikasgelan erabiltzen diren estrategien eta baliabideen, espazioen eta denboren aniztasunagatik eta curriculumak ikasteko erritmo desberdinen beharretara egokitzeagatik. Irakasgai honetako jarduerak diseinatzerakoan kontuan hartuko dira curriculumaren malgutasuna, irakaskuntza-testuinguru inklusiboak eta guztiontzako baliabide eskuragarrien erabilera.

Ikasleen eta irakasleen antolamendua espazioen eta baliabideen erabilera, etab

Ikasleak klasean taldeka daude antolatuta baina egin beharreko atazak egitura hauen aldaketa suposatzen dezake momentu puntualetan banaka, binaka eta talde handiagoetan batu daitezkeelarik. Oro har ikasgela bera da espazioari dagokionez ikaskuntza prozesuaren oinarritzako tokia baina ikastetxeak eskuragarri dituen gainontzeko espazioak ere erabili daitezke irakasgaiaren helburuak betetzeko beharrezkoa denean.

Baliabideei dagokionez alde materialean ikastetxeak orokorrean eta ikasgelak bereziki eskaintzen dituen zein ikasleek dakartzaten elementuekin osatuko litzateke. Horretaz gain, baliabide digitalak daude, ikasle bakoitzak daukan eramangarriaren bidez erabili daitezkeenak klasean bertan.

Azkenik, ikasturtean zehar egiten diren txangoak ere aipatu behar dira, klasean lantzen dugunean sakondu edo konplementatzeko beste espazio eta baliabide batzuei hurbilpena suposatzen baitute.

Elementu digitalen erabilpena

Ikasgelan digitalizazioa ikaskuntza-prozesuak garatzeko elementu lagungarria izango da. Izan ere, hainbat ataza garatzeko plataforma izateaz gain informazio iturri zein erraminta bezala ere erabili daitezke digitalizazioak eskaintzen dituen proposamenak. Era berean, ebaluazioan zein komunikazioan ere berebiziko garrantzia izango du teknologia-berriek. Espezifikoki, lizentzia libreko materialaren aldeko apostua egingo dugu Creative Commons bezalako lizentziak erabiliz eta beraz egungo legeak errespetatuz izaera publikoa duten elementu guztietan.

Materialak eta baliabideak

- Dokumentuak eta testu liburu desberdinak

- Baliabide digitalak
- Pelikulak, laburmetraiak, dokumentalak, abestiak, ...
- Bibliako pasarteak

Ebaluazioari, haren ondorioei eta kalifikazio-irizpideei buruzko erabakiak

Ebaluazioa • <i>Helburua (formatiboa, akreditatzailea)</i> • <i>Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran)</i> • <i>Ebaluatze teknikak, tresnak eta erramintak</i> • <i>Eragileak (autoebaluatzea, elkarri ebaluatzea eta heteroebaluatzea)</i>	Ebaluazioaren ondorioak: • <i>Kalifikazioa</i> • <i>Programazio didaktikoaren berrikuspena eta doitzea</i> • <i>Errefortzu-neurriak hartzea, egokitzeko neurriak hartzea, curriculuma zabaltzeko eta aberasteko proposamenak</i> • <i>Berariazko programatan parte hartzea.</i> • <i>Etab.</i>	Kalifikazio-irizpideak Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola: - o Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea - o Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea. - o Gaitasunen garapen-maila adostea - o Berariazko gaitasunen ponderazioa, ebaluazio-irizpideak... definitzea) - o etab.
Ebaluazioa: • Helburua (formatiboa, akreditatzailea)	Ebaluazioaren ondorioak: • Kalifikazioa • Programazio didaktikoaren berrikuspena eta doitzea	Kalifikazio-irizpideak: Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:

• Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran) • Ebaluatze teknika, tresna eta erramintak • Eragileak (autoebaluatzea, elkarri ebaluatzea eta heteroebaluatzea)	• Errefortzu-neurriak hartzea, egokitzeko neurriak hartzea, curriculum zabaltzeko eta aberasteko proposamenak • Berariazko programatan parte hartzea. • Etab.	• Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea • Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea. • Gaitasunen garapen-maila adostea • Berariazko gaitasunen ponderazioa, ebaluazio-irizpideak... definitzea) • etab.
Ebaluazioaren helburua: Ebaluazioa konpetentziak ebaluatzen zuzenduko da eta ez oinarritzeko jakintza ebaluatzen. Ebaluazioak izaera formatiboa izango du eta beraz, irakaslea bidelaguna izango da ikaslearen egin behar duen horretarantz bideratzeko ikasketa prozesuan zehar. Beste momentu batzuetan ordea ebaluazioak formazio akreditatzailea izango du, ea landutako gaitasunak ikasleak garatu dituen ala ez akreditatzeko. Ebaluatze finkatutako denborak: Ebaluazioa hezitzailea izango da eta ikaslearen autoerregulaziora bideratua. Horrela, ebaluazioa eguneroko jardunean txertatuta egongo da ebaluazioaren momentu orotan eta ez soilik bukaeran.	Kalifikazioa: Konpetentzia espezifikoak ebaluatuko dira ebaluazio-irizpideen bidez ikasle bakoitzaren konpetentzia maila neurtzeko, programazio honetan gorago adierazi denaren arabera. Konpetentzia espezifikoaren kalifikazioaren ondorioz deskriptore operatiboen bidez funtsezko konpetentzien garapen maila ere kalifikatuko da hala dagokionean. Programazio didaktikoaren berrikuspena eta doitzea: Programazio didaktiko hau dokumentu bizia da eta ikasturteko edozein momentutan moldatu daiteke jakintzagaia eta ikaslearen ikaskuntza prozesuarentzat onuragarria den heinean. Errefortzu-neurriak hartzea, egokitzeko neurriak hartzea, curriculum	Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea DDH1eko ikas mailan mintegian erabakitako ebaluazio irizpideen bidez kalifikatuko da ikasgaia. Berariazko gaitasun bakoitzean lorpen-maila minimoa 10etik 5 lortzea bada ere, posible izango da jakintzagaia gaintzea nahiz eta konpetentzia espezifiko guztietan garapen maila ertainera ez heldu. Hala ere, hori gauzatzeko landu eta kalifikatuko diren konpetentzia guztien batz bestekoak ikaslearen maila ertaina dela adierazi beharko du. Beraz, lorpen maila minimoa batz beste 10etik 5a lortzea da konpetentzia guztien arteko batz bestekoan. Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea:

Ikasleak eta familiak lehen momentutik ezagutuko dute ebaluatzeke era eta ikasleak atazen aurretik ataza horretan zer eskatuko zaion aurretiaz jakingo du. Ondoren, prozesuan murgildu ahala feedback-aren bidez jasoko du bere jardunean ondo egiten duena, egiten ez duena edo desegoki egiten duena identifikatu eta aurrerantzean bere lan egiteko modua alda dezan. Azkenik ikaskuntza prozesuen bukaeran ere ebaluatuko da egindakoa. Ebaluazioaren eragileak: Irakasleak zein ikasleak izango dira ebaluazioaren eragileak. Autoebaluazioa eta koebaluazioaz gain irakaslearen ebaluazioa jasoko du ikasleak eta atzeraelikadura edo feedback-a emango zaio ikasturtean zehar dagokion bidetik doala ziurtatu edo jomuga horretarantz bideratu dadin. Atzeraelikaduraren helburua beti izango da ikaslearen hobekuntza (feedforward) eta ez txarto egindakoa era ezkorrean adieraztea. Horrela, egindako akatsak hobetzeko aukera bezala kontenplatuko da ebaluazioa eta optika baikor batetik jorratuko da prozesua. Ebaluatzeke teknikak, tresnak eta erramintak:	zabaltzeko eta aberasteko proposamenak: Errefortzua hainbat bidetatik etorriko da. Material gehiagarria izatekotan ikasleei helaraziko zaie. Egokitzapenei dagokionez, nahiz eta IDU printzipioak eta metodologia kooperatiboak erabili, gure ikasle batzuek izan ditzaketen zailtasun espezifikoak aintzat hartuko dira beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapenak eginez betiere ikaslearen beharrian eta ongizatea jomuga izanik. Berariazko programatan parte hartzea: HBSP bezalako programak indarrean dauden bitartean erabiliko dira hala behar duten ikasleak laguntzeko eskaintzen zaizkigun baliabide gehigarriei profitatuz. Berreskurapena: Ebaluazioa jarraia da eta konpetentzietan oinarritua. Konpetentzia bera bi aldiz ebaluatzean garapena ikusiko da nahiz eta behin kalifikatu. Ikasturte bukaeran Hezkuntza Sailak adierazitakoaren arabera konpetentzia batzuetan edo konpetentzia horiek biltzen	Ebaluazio irizpideak lorpen adierazleetan banatzea eta hauek jardun mailetan banatzea kontenplatzen da konpetentziaren bat horrela ebaluatzea egoki izanez gero baina oro har ebaluazio irizpideak zuzenean baloratzea da aproposena eta sinpleena. Gaitasunen garapen-maila adostea: Gaitasunak 0tik 10era edo 0tik 3ra baloratuko dira eta 5ak banatuko du maila. 0-4.99: Hasiera maila 5-7,99: Maila Ertaina 8-10: Maila aurreratua Berariazko gaitasunen ponderazioa definitzea: Konpetentzia espezifiko bakoitzaren ponderazioa irakasgaiaren barnean irakasleak erabakiko du konpetentzietako bakoitzak daukan garrantziari jarraiki eta mintegiarekin batera.
--	---	--

Ebaluazioa jarraia izango da eta ondorengo tresna eta erraminten bidez burutuko dugu: • Ebaluazio tresnak: Ikasleak egindako idatzizko probak, aurkezpenak, elkarriketak, ekoizpenak, debateak, proiektuak, audioak, bideoak... Ebaluazio erramintak: irakasleak ikaslearen konpetentziak ebaluatzeko erabiliko dituen errubrikak, kontrol zerrendak, balorazio eskalak... izango dira.	dituen jakintzagaian ikaslea minimoetara heldu ez bada, dagokion momentuan aukera emango zaio berriz bere gaitasunak frogatzeko eta kalifikazio berria jasotzeko.	
---	--	--